

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak aurrekontu luzatua urtarrilaren 1etik hasita betetzen dela bermatzeko mekanismoak erabakiko ditu

Abenduko azken astean onetsiko dira gastua zerbitzu publikoetara eta ekonomia eta enpleguaren sorrerara bideratzeko ildoak.

Miércoles, 11 de diciembre de 2013


Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, aurrekontu luzatua onesteko egutegia ezarri du, hala, aurrekontua 2014ko urtarrilaren 1etik hasita betetzen dela bermatuko da, atzerapenik gabe. Hori dela-eta, aurreikusi denez, abenduaren azken astean gauzatuko da datorren urteko aurrekontua betetzeko ildoak ezatzen dituen Gobernuaren Akordioa. Ildo horiek osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen arloko politika publikoak eustera bideratuko dute gastua, baita ekonomia eta enplegua sortzera ere.

Horrela, onetsitako azken aurrekontuaren, hau da, 2012koaren, zenbateko osoa luzatuko da; 3.837,7 milioi eurokoa da. Zenbateko horretatik 2013. ekitaldian amaitu diren zerbitzu eta programak kendu behar dira, baita iraungi diren betebeharrak ere. Zenbateko horiek 81 milioi eurokoa izango den Luzapeneko funtsa osatzen dute, eta 2013an konprometitutako gastuak finantzatzeko erabiliko da, baita legezko arauetan ezarritako eta 2012ko aurrekontuan jaso ez ziren gastuak finantzatzeko ere.

2012ko aurrekontuaren zenbateko osoaren luzapeneko funtsa kendu ondoren, aurrekontu erabilgarria 3.756,7 milioi eurokoa izango da. Gastu ez finantzarioaren aurrekontua 3.382,7 milioi eurokoa izango da eta gastu finantzarioa 374 milioi eurokoa.

Gastu sozialaren mantenimendua

Aurrekontu luzatua gauzatzeko ildoek Nafarroako Gobernuaren lehentasunak islatuko dituzte: gastu soziala mantentzea, hau da,



Nafarroako Ogasunaren eraikinaren fatxada.

hezkuntza, osasun eta gizarte-politiken arloetako partidak; ekonomia indarberritzea eta enplegua sortzea eragiten duten gastuen partidak sustatzea; eta, berriz ere, administrazioaren egitura eta jardunaren gastua murriztea.

Hala, Nafarroako Gobernuak Espainiako gizarte-babeserako sistemarik onena izaten jarraituko du, izan ere, Mendekotasunari buruzko Legea eta gizarteratze-errenta aplikatzen ditu. Halaber, egoitzetako plazak eta sektoreko lanpostuak mantentzen direla ziurtatuko da.

Hezkuntzari dagokionez, Gobernuak irakaskuntza ertainetarako eta unibertsitaterako beken kopuruak, sare publikoko zein itunpeko sareko zentrozen jardunerako finantzaketa eta hizkuntza eta teknologien aldeko apustua mantenduko ditu, eta bereziki sustatuko du liburu digitalaren pixkanakako garapen eta ezarpena.

Ekonomia eta enplegua indartzeko, ekintzailatza eta enplegua sortzeko politika aktiboen inbertsioak, internazionalizazioa eta I+G+B proiektuak sustatzeko eta lehen sektorearen eta nekazaritzako elikagaien industriaren aldeko neurriak aplikatzen jarraituko da.

Nafarroako Ubidea luzatu eta proiektuari jarraipena emateko, eta ureztatzeen garapenaren proiektu estrategikoen aldeko apustu berezia egingo da.

Administrazioaren gastua murrizteari lotuta, enpresa publikoetara egiten diren transferentzia arruntak murriztuko direla aurreikusi da, % 10 baino zertxobait gehiago.